

Pauso bat eman du tokiko freskoen espezializazioan

**EROSKI-K TOKIKO ELIKAGAI FRESKOTIK %10
GEHIAGO SALDU DU EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOAN LEHEN SEIHILEKOAN**

- **%20 igo zaio Euskal Autonomia Erkidegoko fruta eta barazkien salmenta bolumena**
- **Era berean, tokiko haragitik eta arrainetik %10 gehiago saldu du, hurrenez hurren**
- **Kooperatibak lehen sektorearen iraunkortasunaren alde dihardu ekoizpen eredu oso dibertsifikatu bat bultzatuta. Horretarako, EAEko nekazaritzako elikagaien 277 ekoizle txikirekin ari da lanean, eta 175 milioi euro erosten dizkie urtero**
- **Denera jota, EROSKI ia 2.000 hornitzaileekin ari da lanean Euskal Autonomia Erkidegoan, eta 600 milioi eurotik gorako erosketak egiten dizkie urtero**

Elorrio, 2016ko irailaren 6a.- [EROSKI](#)k tokiko janari freskoetan %10 gehiago saldu du lehen seihileko honetan Euskal Autonomia Erkidegoan. Hazkunde hori kooperatibaren Zurekin eredu komertziala hedatu izanari zor zaio hein handian; izan ere, apustu sendoa egin du tokiko janarien alde, elikadura osasungarriago baten oinarri gisa. Kontsumo eredu horrek, gainera, tokiko nekazaritzako ekoizpen ehun oso dibertsifikatua bultzatzen du, gakoa delakoan sektorearen iraupenerako eta denda guztien inguruneke ekonomiari, kulturari eta paisaiari laguntzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, EROSKI lanean dihardu nekazaritzako elikagaien 277 ekoizle txikirekin, eta 175 milioi euroko erosketak egiten dizkie urtero epe erdi-luzeko akordioen bitartez, eta horrek egonkortasuna dakarkio nekazaritzako elikagaien sektore iraunkor eta oso dibertsifikatu bati. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore ekonomiko guztiak kontuan hartuta, EROSKI ia 2.000 hornitzaileekin ari da lanean, eta 600 milioi eurotik gorako erosketak egiten dizkie urtero; horietatik %60 baino gehiago nekazaritzako elikagaiak izaten dira.

"Kontsumitzaileak gero eta gehiago balioesten du bere ingurune hurbileko janaria, eta Zurekin denda berriek proposamen espezialista bat eskaintzen dute tokiko elikagai freskoetan. Kontsumitzaileek berriz ere ulertzen dute produktuaren eskuragarritasuna askoz ere aldakorragoa izatea eta tokiko ekoizpen sasoiekin lerrokatzea, eta tokiko janari freskoen espezializazio hori belaunaldi berriko EROSKI denden bereizgarri bat da dagoeneko", esan du Asun Bastidak, EROSKIren Tokiko Produktuetarako zuzendari komertzialak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA**CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Fruten, berduren eta barazkien salmenta %20 igo da

Frutategiak garrantzi handia hartzen du EROSKIren belaunaldi berriko dendetan, eta oso espezializatua dago kooperatibaren saltokien ingurune hurbileko frutetan, berduretan eta barazkietan. Urteko lehen erdian, EROSKI %20 igo du Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko fruten, berduren eta barazkien salmenta bolumena.

"EROSKIren belaunaldi berriko dendetan, asmoa da bezeroa harritzea tokian-tokian ekoizten diren sasoko freskoen kalitatearekin; dinamika horrek garrantzi handia du frutaren atalean, eta saiatzen gara kanpaina bakoitza bezeroarekin bizitzen. Kontsumitzailearen harrera ezin baikorragoa izan da, eta udako barazkien kanpaina oso ona", nabarmendu du Bastidak.

Harategiko mahai jarri berrien arrakasta

Sare komertziala birmoldatuta-birmoldatuta, EROSKI harategiko mahaia jarri du belaunaldi berriko bere dendetan, bezeroari arreta pertsonalagoa emateko. Kontsumitzaileari egindako proposamen horrek saria izan du, harategiko salmentak %10 igo baitira Euskal Autonomia Erkidegoan, lehen seihileko honetan.

Igoera horren oinarrian, honako alderdi hauen akordioa egon da: [EROSKI](#), [HAZI Fundazioa](#) —[Eusko Label](#)en erakunde ziurtatzailea— eta Harakai-Urkaiko kooperatiba; akordio horren bitartez, Euskal Okela AGBak egiaztatutako behi haragiaren sustapena eta komertzializazioa bultzatzen da *EROSKI Natur Euskal Okela* marka propioarekin.

Arrakasta hori Eusko Label bildotsera zabaldu dute EROSKI eta Harakai-Urkaiko baseritar kooperatibak, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoko ardiki ekoizpenaren %60 hartzen baitu.

Tokiko janarien aldeko apustu horretan, EROSKI oilategietara ere jo du. Euskal Autonomia Erkidegoan arrautza ekoizpena igotzea lortu du, denda guztiak hornitzeko moduan, eta iaiztik, EROSKI marka propioan saltzen dituen arrautzen %100 tokiko ekoizpenekoak dira.

Tokiko arrantza berreskuratzen

Euskal portuetan egunero sartzen den arrainak beti du espazio bat gordea EROSKIren belaunaldi berriko dendetan. *"Arrain mota asko dago, eta ez da beti berdina, egokitu egiten baikara gure dendetatik hurbil diren portuetan egunero sartzen den horretara. Hala, kontsumitzailearen sentsibiltate berrira moldatu nahi dugu, garrantzi handia ematen baitiote produktuaren freskotasunari eta hurbiltasunari eta, era berean, elikadura osasungarriagoari eta iraunkorragoari", esan du Asun Bastidak.*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Euskal arrantzontzidiarentzat, oso inportanteak dira hegaluzearen, antxoaren eta berdelaren kanpainak, eta gakoak dira itsasbazterreko arrantzontzidien iraunkortasunerako. Urteko lehen sei hilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko arrain merkatuetatik datorren arrainaren salmenta bolumena %10 igo da EROSKIIn.

Janari banatzaileetan lehena Euskal Autonomia Erkidegoan

Kooperatiba izaera duen lehen banatzailea da EROSKI, eta liderra Euskal Autonomia Erkidegoko elikagaien banaketan. 21 hipermerkatuko eta 225 supermerkatuko sare komertziala du EAEn, eta, horrez gainera, hamabost gasolindegia, 78 bidaiaria bulego, 61 iF lurrindegia eta kirol ekipamendurako 20 FORUM SPORT. 680.000 Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 9.800 langiletik gora; horietatik %70 kooperatibako bazkideak.

EROSKI 2013an hitzarmen bat sinatu zuen Eusko Jaurlaritzarekin, EAEko nekazaritzako eta arrantza sektoreetako elikagaiak bultzatzeko. Gerotik, sektorearekin batera, ekimen kopuru handi bat garatu du nekazaritzan, abeltzaintzan eta arrantzan, baita tokiko elikagaien ekoizpenean ere, marka propioko produktuak sortuta, hala nola arrautzenak, sagardoarenak, txakolinarenak, Arabar Errioxako ardoarenak eta Artzai Gazta Idiazabal jatorri izeneko gaztarenak.

Bestalde, EROSKI lehen banatzailea izan zen, NIREA akordioa sinatu zuena, nekazaritzako elikagaien euskal sektoreko ekimen bat, ekosistemari eustearen eta landa eta itsasbazter ingurunean garapen iraunkorra sustatzearen alde eta EAEko garapen ekonomikoari eta sozialari egiten dion ekarpena aitortzen duena.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)